

Mondragon Unibertsitateak eskaintza akademikoa zabaldu du sei unibertsitate-master berriren bidez

- **Duela hiru urte Bolognako prozesua aplikatu zuen lehen euskal unibertsitatea izan ondoren, proiektuaren bigarren faseari ekin dio orain unibertsitate-master berriak martxan jarritz**
- **Datorren ikasturtean irtengo da Mondragon Unibertsitatetik titulua Bolognari egokituta duten euskal ikasleen lehen promozioa.**
- **Guztira, 10 unibertsitate-master eskainiko ditu Mondragon Unibertsitateak, baita masterren berezko hogeita hamar titulu, aditu-ikastaroak eta ikastaro aurreratuak ere**
- **Oinarrizko ezagutza nahiz trebezia orokorrak gradu-ikasketen bidez emango dira eta espezializazioa unibertsitate-masterren bidez lortuko da**

Donostia, 2011ko uztailak 7. Orain dela hiru urte Europako Goi Hezkuntza Esparrura moldatu zen lehen euskal unibertsitatea eta Estatuko lehenetakoa izan ondoren, Mondragon Unibertsitateak prozesu horren bigarren faseari ekin dio 2011-2012 ikasturtean Bolognara egokitutako hamar unibertsitate-master eskainiz; unibertsitate-master horietako sei berriak dira.

Hala, Mondragon Unibertsitateak Europako araudi berrira egokitutako 12 gradu-titulu eta hamar unibertsitate-master eskainiko ditu datorren ikasturtean, baita unibertsitateko berezko hogeita hamar master, aditu-ikastaroak eta ikastaro aurreratuak ere, guztia bere sei campusetan banatuta. Gainera, ezaugarri berezi bat izango du 2011-2012 ikasturteak: bukatzen denean Bolognara egokitutako euskal ikasleen lehen promozioa irtengo da unibertsitatetik.

Mondragon Unibertsitateak 2011-2012 ikasturtean martxan jarriko dituen sei unibertsitate-masterretatik lau ingeniartzaren alorrekoak dira, eta gainerako biak hezkuntzaren alorrekoak. Sei titulu berriok joan den ikasturtean eskaini ziren beste lau tituluak osatzera datoz: bi master enpresa-kudeaketaren alorrean, bat ingeniartzaren alorrean eta hezkuntzaren alorreko beste bat.

Berrikuntza handiak

Eskaintza berriak berrikuntza handiak inplikatu ditu. Unibertsitate-masterrek izaera ofiziala dute eta akreditazio-agentzien ebaluazioak gainditu dituzten unibertsitateetan baino ezingo dira eman, Hezkuntza Ministerioaren nahiz Eusko Jaurlaritzaren oniritzia jaso ondoren. Europako Goi Hezkuntza Esparruak aldarrikatzen dituen aldaketak aplikatuta, lau urte irauten duten eta lan-merkatuan sartzeko aukera oso interesgarriak ematen dituzten gradu-tituluak eskaintzen ditu Mondragon Unibertsitateak, ikasleek oinarrizko ezagutzak lortu ditzaten eta horrez gain, ikasleak alor zehatzetan espezializatzeko, unibertsitate-masterren eskaintza berria ere badu.

Orain arte, ikuspegi globala ematen zuten bigarren zikloek. Orain kontzeptua aldatu egin denez, informazio orokor hori gradu-ikasketen bidez ematen da eta unibertsitate-masterren bidez espezializazioa. Hortaz, gradu-ikasketak bukatzen dituzten ikasleentzat pentsatu dira masterrok. Bestalde, orain arte ingeniartzako bigarren ziklo eta lizentziatura izan direnak egokitzeko beharra dakarte aldaketa horiek.

Hauek dira aipatu ditugun Mondragon Unibertsitatearen unibertsitate-masterren ezaugarriak: espezializazio maila altua eta izaera praktikoa, edukiak enpresa nahiz instituzioen beharretatik oso hurbil daudelako eta eurekiko harremana zein ikasleen enplegarritasuna bultzatzen dutelako. Nazioartekotzea eta ikerkuntza ere helburuen artean ditugu. Izan ere, unibertsitate-master horien profiletako bat etorkizuneko ikerlariena izango da, doktoretza egiteko sarbidea baitira.

Eskolen modalitateari dagokienez, masterretako batzuk % 100ean aurrez aurrekoak izango dira, baina beste batzuk *on line* modalitatean eskainiko dira, munduko edozein lekuko pertsona interesatuek eskura izan dezaten.

Euskal esparruan jada duen posizionamendu onetik abiatuta, masterren nazioarteko hedapena handitzea da unibertsitate-masterren eskaintza berriak Mondragon Unibertsitateari jotzen dizkion erronketako bat. Atzerriko unibertsitateekiko aliantzen bidez bideratuko da nazioarteko hedapen hori, diploma bikoitzak lortzeko aukera emango duten master bateratuak definituz. Izan ere, Mondragon Unibertsitatean badira jada diploma bikoitz horiek lortzeko aukera ematen duten master batzuk.

UNIBERTSITATE MASTERRAK

INGENIARITZA

1-(BERRIA) Enpresa berrikuntzako eta proiektu zuzendaritzako unibertsitate-masterra.

Tokia: Arrasateko campusean dagoen Goi Eskola Politeknikoa eta Zamudioko Teknologia Parkea. Iraupena: urtebete

Ingeniaritzako, Arkitekturako edota Zientzietako unibertsitate-titulua dutenentzat. Industria-antolakuntzaren alorrean trebakuntza eta espezializazioa ematen duen prestakuntza-programa da. Horren bidez, ikasleek enpresaren ikuspegi globala eta estrategikoa garatuko dute, aukera, berrikuntza eta proiektu berriak etengabe identifikatu ahal izateko.

Enpresek ekonomia berrian aurkitzen dituzten erronka nagusiei erantzuteko pentsatu da, gaur egun lehia-abantaila lortzeko, garrantzi erabakigarria baitute ideia gorpuzteko bizkortasunak nahiz garatzeko

eraginkortasunak. Testuinguru horretan, nahitaezkoak dira berrikuntza eta proiektu-zuzendaritza erakundeen funtzionamendua optimizatzeko.

2-(BERRIA) Industria ingeniartzako unibertsitate-masterra.

Tokia: Arrasateko campuseko Goi Eskola Politeknikoan. **Iraupena:** Bi urte.

Industria ingeniartzak teknikoko adarreko titulua dutenentzat. Bi espezialitate ditu masterrak: Mekanika estrukturala eta materialak eta prozesuak. Programan goi mailako prestakuntza jasoko duten profesionalak hainbat proiektu teknikoki nahiz ekonomikoki kudeatzeko gai izango dira; produktu, prozesu, instalazio nahiz lantegien diseinuak, enpresak eta teknologia-zentroak. Horrela bada, eraikuntza-, ekoizpen- eta kalitate-sistemak nahiz ingurumena kudeatzekoak planifikatuko dituzte diziplina anitzeko taldeen bidez, eta garapen zientifikoa eta teknologikoa xede duten proiektuak zuzendu eta kudeatuko dituzte diziplina eta sektore anitzeko inguruneetan, industria ingeniariaren eginkizun profesionalen alor guztietan sortutako ezagutzaren transferentzia eta kudeaketa bultzatuz.

MU-k materialen eta manufaktrazioaren alorrean landutako ikerketa-ildoari jarraituko zaio masterrean, erreferentzia baita Estatu mailan eta orientazio praktikoarekin osatuko da, lan-munduarekiko eta enpresekiko harreman etengabea.

3-(BERRIA) Sistema txertatuetako unibertsitate-masterra.

Tokia: Arrasateko campuseko Goi Eskola Politeknikoan. **Iraupena:** Bi urte.

Elektronikaren, informatikaren edota telekomunikazioen alorretako unibertsitate-titulua dutenentzat. Programaren bidez, sistema txertatuetan oinarritutako produktuak berri, diseinatu, garatu, ebaluatu eta mantentzeko gai diren profesionalak prestatzen dira, produktuen bizi-zikloak dirauen bitartean fidagarritasuna bermatu dezaten. Masterrak puntako teknologietan espezializatzeko aukera ematen du, esaterako: sistema txertatuak diseinatu, garatu eta programatzeko paradigma berriak, komunikazio-protokolo sortu berriak, sensore espezializatuen sareak, errendimendu handiko prozesamendua, HW-sistema aurreratuak diseinatu/garatzea.

Masterraren barruan, segurtasunaren, fidagarritasunaren eta irisgarritasunaren arloetan indarrean dauden eta sortu berri diren araudien analisiak aztertuko dira, egungo merkatuan egiaztapenak eta lehiakortasuna lortzeko nahitaezkoak baitira. Masterra bukatzeko lana hainbat enpresatan egiteko aukera dago, besteak beste; eTic - Embedded Technologies Innovation Center, Ikerlan, Orona, Traintic, Ulma Embedded Systems, etab.

4-(BERRIA) Energia- eta potentzia-elektronikako unibertsitate-masterra.

Tokia: Arrasateko campuseko Goi Eskola Politeknikoan. **Iraupena:** Bi urte.

Elektrizitateko, industria-elektronikako nahiz automatika eta elektronikako adarretan Injeniaritzako unibertsitate-titulua dutenentzat nahiz Injeniaritza, Arkitektura edota Zientzietako alorretako titulu desberdinak dituztenentzat. Programan prestatutako profesionalek potentzia-elektronikaren aplikazioen analisi espezifikoa egiteko gai izango dira

(energia sortzea, berriztagarriak, industria-aplikazioak, trakzioa, etab.), baita potentzia-bihurgailu elektronikoen azterketa eta analisi espezifikoak (diseinua, modelatzea, kontrola eta analisia) nahiz makina elektrikoaren azterketa eta analisi espezifikoak ere (diseinua, modelatzea, kontrola eta analisia).

Garapen iraunkorraren erronka nagusietako bati erantzuteko pentsatu da programa; energiaren sorkuntza, garraioa, biltegiatzea eta kudeatzea. Programa honek ez du parerik energiaren alorrean, potentziaren eta makinaren elektronikaren ziklo osoa ixten duelako, masterrean bertan planteatzen den bezala: aplikazioen analisi xehea (sorkuntza, berriztagarriak, trakzioa, sare elektrikoa, etab.), makinaren eta bihurgailuaren diseinua nahiz kontrola barne hartuz, aplikazio horietako askotan funtsezko elementuak baitira. Master honetan aplikazioen analisi xehea planteatzen da (sorkuntza, berriztagarriak, trakzioa, sare elektrikoa, etab.), makinaren eta bihurgailuaren diseinua nahiz kontrola barne hartuz, aplikazio horietako askotan funtsezko elementuak baitira.

Industria ingeniarietzako, sistema txartatuetako nahiz energia eta potentzia elektronikako masterretako 2. zikloan, ikasleek aukera izango dute atzerrian ERASMUS egonaldiak egiteko, baita atzerriko unibertsitateekin martxan dauden diploma bikoitzen programetako batean parte hartzeko ere Azken aukera hori baliatuta, diplomatura bikoitza lortu dezakete, besteak beste, INSA Toulouse, ECN Nantes edota ENSEEIHT Toulouse Ingeñiaritza Eskola frantziarren bitartez.

5-Produktu eta zerbitzuen diseinu estrategikoko unibertsitate-masterra.

Tokia: Arrasateko campuseko Goi Eskola Politeknikoan. Bi urte.

Industria-diseinuko, industria-ingeniaritzako edota arkitekturako goi mailako unibertsitate-titulua edo titulu teknikoa dutenentzat. Programaren bidez, produktu, zerbitzu nahiz prozesu teknologikoetan berrikuntza sortu eta sustatzeko gai diren profesionalak prestatzen dira, iraunkortasunean eta pertsonengan kontzentratutako diseinuan oinarritutako diseinu estrategikoaren bidez.

Garapen iraunkorraren erronka nagusietako bati erantzutea da programaren helburua; ingurumenarekiko errespetuzkoagoak diren produktuak edota zerbitzuak diseinatzea eta garatzea. Hortaz, berrikuntzan lan egiterakoan iraunkortasun soziala hartzen da kontutan, ez bakarrik iraunkortasun ekonomikoa. Edozein industria-erakundek dituen 3 behar berezitan espezializatzeko aukera ematen du masterrak, hots, eko-berrikuntza, esperientziak diseinatzea eta produktu edota zerbitzuen diseinu-estrategia.

HEZKUNTZA

6- (BERRIA) Testuinguru multikultural eta eleaniztunetako hezkuntzako unibertsitate-masterra.

Mundu globalizatuak aldaketak eragin ditu **hezkuntzaren alderdi** guztietan, **besteak beste, testuinguru** eleanitz eta multikultural **berriak**. Egungo hezkuntzak (formalak eta ez-formalak) egoera berri horiek kudeatzeko eta garatzeko prestakuntza eskatzen du. Behar sortu berri horiei erantzutea da masterraren xedea. Gizarte osoak kalitatezko hezkuntza bermatzeko gai diren profesionalak behar ditu.

7- (BERRIA) **Hezkuntza-instituzioetan berrikuntza metodologikoko proiektuak garatzeko unibertsitate-masterra.**

Hezkuntza-instituzioetan berrikuntza didaktiko-metodologikoko proiektuak garatu eta kudeatzeko unibertsitate-masterraren helburu orokorra berrikuntza metodologikoko proiektuak sortu eta kudeatzea da, hezkuntza-inguruneko behar eta aukerei buruz hausnartuz, esku hartzeko estrategia eta baliabide berriz kontzeptualizatuz, proposamen berritzaileak aplikatzeko ekintzen bidez eta emaitzak ebaluatuz.

8- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta hizkuntzan irakaskuntzan irakasle izateko irakaskuntza-gaikuntzako unibertsitate-masterra.

Tokia: Eskoriatzako campuseko Gizarte eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Iraupena: Urtebete.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta hizkuntzen irakaskuntzan irakasle izateko behar diren ezagutza nahiz gaitasun pedagogiko eta didaktikoak dituzten profesionalak prestatzea da helburua, besteak beste, Matematika, Gizarte Zientziak, Teknologia, Zientzia Esperimentalak, Hizkuntza eta Literatura, etab. irakatsi ditzaten.

ENPRESA ZIENTZIAK

9-Enpresa kooperatiben kudeaketako unibertsitate-masterra.
(Ikerketa-ildoan espezializazio akademikora orientatuta)

Tokia: Oñatiko campuseko Enpresa Zientzien Fakultatea. Aurrez-aurrekoa eta *on line*. Iraupena: Urtebete.

Info

Arlo guztietako unibertsitate-titulua izanda, lan-munduan txartatzen lagunduko dien titulu ofizial baten bidez euren prestakuntza handitu nahi duten pertsonentzat da, baita lan-eskarmentua eta titulua izanda, euren karrera profesionalari bultzakada eman nahi diotenentzat ere. Helburua da gazte graduatuei nahiz lanean ari diren profesionalei enpresa kooperatibak eta ekonomia sozialekoak kudeatu eta zuzentzeko behar diren gaitasunak ematea.

10.- MBA unibertsitate-masterra. Enpresa-zuzendaritzako unibertsitate masterra.

Tokia: Oñatiko campuseko Enpresa Zientzien Fakultatea. Iraupena: Urtebete.

Helburua da gazte graduatuei nahiz lanean ari diren profesionalei enpresak nahiz erakundeak zalantzazko inguruneetan eta testuinguru globaletan kudeatu eta zuzentzeko behar diren gaitasunak ematea. Horretarako, askotariko ezagutzak, gaitasun espezifikoak eta trebeziak uztartzen dituen diziplina anitzeko ikuspegia aplikatzen zaio programan enpresaren kudeaketari, parte hartzaileak gaur egungo enpresetan eta ekonomia berria deritzonaren barruan molda daitezten.

Bost ibilbide desberdin eskaintzen ditu master honek: Zuzendaritza orokorra, marketin-zuzendaritza, finantza-zuzendaritza, logistika eta garraioa, ikerketa eta doktoretzarako sarbidea.

V K Comunicación

Informazio gehiago:

Xusane de Miguel Ortiz.

Tfnoa.: 944 01 53 06. Mugikorra 629 75 33 36.

Helbide elektronikoa: xusane@vkcomunicacion.com